

Andra Mariaren 2000. urtean

**MARIAREN GARRANTZI HANDIA
EBANGELARIANTZAT
(IKUSPEGI OROKORRA)**

Sarrera

Ondoko lerro hauetan, ebangelioetan Mariari buruz esan ohi diren gauza jakinik ez da jarriko, hau da, bere fede, jokabide, bertute, salbuespena bere amatasuna dela eta... etab. Mariaren garrantzia dela eta ebangelariek duten eritzi orokorra eta Testamentu Berrian izan duen traszendentzia ikusten ahaleginduko gara.

Sarritan esan ohi da, Birjiña gutxitan agertzen dela ebangelioetan baina kontuan izan behar dena zera da: narrazio biblikoaren momentu puntarenetan agertzen dela. Adibidez, Birjiñaren amatasunari buruzko agerpenak berari buruz egindako narrazio guztiek baino garrantzia handiagoa du.

Ondoko lerroek, ebangelariek adimenean duten Mariari buruzko errealitatea zein den jakin araziko digun eskema eratu-ko digute.

1. Zein da Maria Lukasentzat?

Lukas ebangelariak egiten duen konparaketa batetan finkatuko naiz bakarrik; horrela, Mariaren garrantzia handiaz ohartuko gara.

Dakigunez, Israel-ko herriarentzat, Jainkoaren legea edo presentzia eta borondatea gordetzen duen «Jahweh-ren Kutxa» da gauzarik sakratuena. Hain zuzen ere, Lukasek *Kutxa hau eta*



Maria konparatzen ditu eta zera esaten digu: Testamentu Zaharrean sakratuena Kutxa bazen ere, Testamentu Berrian, bere barruan gizatu den Jainko-biziaren maitasuna gordeko duen Maria da.

Nola egiten du Lukasek konparaketa hau? Narrazioan, Samuelen liburuko esaldi eta agerraldi batzuk hartu eta Mariarekin jartzen ditu paraleloki:

-Davidek Jaunaren Kutxa Jerusalem-era eramán nahi du (2 Sm. 6)

-eta David Kutxaren aurrean pozez dantzari (2 Sm. 6, 5.15.21)

-Hiru hilabetetan egon zen Jaunaren Kutxa Obededon-en etxean (2 Sm. 6,11)

-Jaunak Obededon eta honen etxeko guztiak bedeinkatu zituen (Sm. 6,11)

-Gero (hiru hilabete ondoren), Davidek bere herrira eramaten du Jaunaren Kutxa (2 Sm. 6, 12)

-Maria Judako herri batetara doa (Lk. 1,39)


-eta Mariaren aurrean Elisabeth-en sabelean umetxoa «pozez saltoka» (Lk. 1,41)

-Mariak hiru hilabete egin zituen Elisabeth-en etxean (Lk. 1,56)

-(Jaunak Elisabeth-en etxea bedeinkatu zuen): «YON» izenak zera esan nahi du: «Jaunak graziaz bete nau» (Lk. 1,63)

Jainkoa errukarri agertzen da Yon-en jaiozan (Lk. 1,57)

-Gero (hiru hilabete ondoren), Maria bere etxera bueltatu zen (Lk. 1,56)



Jainkoaren Kutxa



*Maria eta Elisabeth
(Juan Haynal'en Leizargina)*

2. San Juan (2, 4: 19,26)

Zer pentsatzen du gomendatua izan zitzaion Mariatz Juan ebangelariak, Jesusen apostolurik gazteenak? Jesusen Berri Ona-ren benetako teologoa den San Juanek ere Mariari buruzko aipamen orokor bat egiten du eta nahiz eta eskuratzeko testuinguru nahiko zaila izan, argi samar agertzen da.

Juanek agerraldi bitan Mariari buruzko hitz bat Jesusen ahoan jartzen du eta Jesusen horrelakoren bat esatea ezinezkoa den arren ere, Juanentzat oso garrantzitsua da:

Zer lortzen da hemen-dik? Ebangelariaren paralelismoa beren berarizkoa dela dirudi eta horrekin zera ematen digu aditzera: Testamentu Zaharrean gauzarik sakratuena Kutxa zen (legearen, Jainkoaren presentziaren kutxa); orain, Testamentu Berrian, Maria da garrantzitsua (Jainko biziaren kutxa).

Zenbat irakas ondorio eta pastoral atera ote daitezke Lukas ebangelariaren beren berarizko paralelismo honetatik!



*Maria eta Elisabeth
(Rafael Sanzio. Musel del Prado)*

«Kana»-ko ezteietan, hau da, Jesus bizitza publikoa egiten hasi zenean eta bizitza honen azkenetan ere, hau da, gurutzean zegoela, Jesussek zera esan omen zion bere amari: «ginai», hots, «Andrea» (Jn 2,4; 19,26).

Argi dago, Juanek, bere ebangelioaren hasiera eta amaiera elkartu egiten dituela, hau da, Jesus predikariaŕen hasierak bere hilketa gurutzean eta berbizkundera. «Nere ordua oraindik ez da heldu» (Jn 2,4) esaldiak gurutzea erlazionatzen digu argi-argi.



Adan eta Eba (Juan Brueghel de Velours, Museo del Prado)

Testamentu Berriko «Andre» honek, Testamentu Zaharreko lehenengoko emakumearen aipamena egiten digu, Evarena. Paralelismo argia dago lehenengoko pekatua, zuhaitza eta gurutzeko erredentzioaren artean; lehenengoko emakumea zuhaitzaren azpian eta bigarrena, gurutzearen azpian. Lehenengoko emakumeak pekatua eramaten gaitu eta bigarrenak salbamenera Berri-Onera bultzatzen gaitu. Belaunaldi Zaharra (Testamentu Zaharra) lehenengoko emakumeagandik dator; Ebagandik, Belau-

naldi berria, graziz betea (Testamentu Berria), bigarren emakumeagandik, Mariagandik.

Konturatzen al gara Juan ebanjelariak, Jesusen teologo handiak egiten digun konparazio garrantzitsu honen indar didaktikoaz?

3. Mariaren eginkizun dinamiko ebangelarientzat

Lehenago aipatu den bezala, Mariari buruz dagoen testu urritasuna gogoan izanik, kontutan hartzekoa da balore historiko eta eklesiastikoa, Maria agertzen den ebangelioko momenturik gorenei ebangelariak ematen dieten sekulako garrantzia.

Maria, isilean, Jesusen eta eliza-ren bizitzako gunerik garrantzitsuetan agertzen da:

-Jesusen bizitzaren hasieran, bizia eta berotasuna emanez agertzen da Maria (Lk 2; Mt 2)

Jesusen bizitza publikoa hasten denean, Maria agertzen da eta Jesusen zeinuei hasiera ematen die (Jn 2)

-Jesusen azken momentuan, hilketa-berbizkundera, kristaudentzat hasiera berri bat izango zen une honetan, Maria gurutze azpian agertzen zaigu (Jn 19,25; [Mt 27,55; Mk 15,40; Lk 23,49]).



El Greco (Museo del Prado)



*San Vicente Ferrer'en Biblia
(Valencia-ko Unibertsitatean)*

-Elizaren bizitzaren hasieran (Pentekostez egunean gutxi gora behera), Maria, Jesusen ama, Jesusen ikasleen artean agertzen zaigu. Mariak, bere presentzia eta otoitzez, elizaren jaioztari berotasuna ematen dio: Mariak ez du hitzik egiten, bizia eta beroa da.

4. Ondorio orokorra

Lukasen Kuxaren eta Mariaren arteko konparaketatik, Juanen Eva eta Mariaren arteko konparaketatik eta bizia eta berotasuna emanez,

Jesusen eta Elizaren bizitzaren hasieretan Mariak izan zuen partehartzetik, ondorio nagusi batetara heltzen gara; bai Jesusen bizitzan eta baita elizaren bizitzan, Mariak izan duen garrantzia handiaz ohartzen gara; Mariak egiten du «eliza» Jesusi bizia emanetz, beti bere aldamenean egonez eta Jahweh-k Jesusi eskatutako guztia onartuaz. Hemendik datorkigu gaur egun dugun ama honen beharra, bizia eta berotasuna ematen duen amaren beharra.

Julen Urkiza